

## EUSKARAREN PAPARAZZIAK 2023

“Prezio berean, euskaraz!” egitasmoaren barnean antolaturiko argazki lehiaketa da EUSKARAREN PAPARAZZIAK. Errenteriako, Lezoko, Oiartzungo eta Pasaiaiko merkataritza eta ostalaritza establezimenduetan euskararen erabilera handitzeko, hizkuntza paisaiak duen garrantzia azpimarratzea du helburu egitasmoak.

Lehiaketan parte hartzera animatu nahi zaituztegu.

### OINARRIAK<sup>(1)</sup>

Parte-hartzaileek Oarsoaldeko (Errenteria, Lezo, Oiartzun eta Pasaia) saltokietan ikusgai eta euskaraz dauden errotuluei, kartelei edo bestelako idatziei argazkiak atera, eta WhatsApp (747 449 416 zenbakira) edo e-posta bidez ([euskararenpaparazziak@gmail.com](mailto:euskararenpaparazziak@gmail.com)) -Wetransfer erabiliz, behar izanez gero- bidali beharko dituzte.

Euskara eta merkataritza/ostalaritza hobekien uztartzen dituen argazkia bidali duenak irabaziko du lehiaketa eta bigarren onenak ere saria izango du (originaltasuna eta argazkiaren kalitatea ere baloratuko dira).

Lan originalak aurkeztu behar dira; argazkiei ukituak egin ahal izango zaizkie, baina ez da fotomuntaketarik onartuko. Halaber, ezingo dira izan beste argazki lehiaketaren batean saritutakoak.

Egileak, argazkiarekin batera, honako informazioa igorri beharko du: izen-abizenak, posta elektronikoa, telefono zenbakia eta argazkia zein herritan eta zein establezimendutan egin duen.<sup>(2)</sup>

Lehiaketan parte hartzeko ez da ez adin, ez bestelako mugarik izango, gehienez 5 argazki aurkezteko muga baino ez. Sariduna 16 urtetik beherako pertsona bada, saria saridunaren guraso edo legezko tutore batek hartu beharko du.

Argazkian ezin da egilearen izenik agertu, ezta egilea identifika dezakeen bestelako elementurik ere.

Antolatzaileek jasotako argazkiak erabili ahal izango dituzte “Prezio berean, euskaraz!” egitasmoan nahiz euskararen normalizaziorako bestelako ekimenetarako, webeko galeriak direla, erakusketak direla... Erabiliz gero, egilea nor den adieraziko dute.

Lehiaketa bukatutakoan, hartutako argazki guztiak [www.oarsoarrak.eus](http://www.oarsoarrak.eus) webaren merkataritza-ostalariak atalean jarriko dira ikusgai.

### LEHIKETAREN EPEAK

Argazkiak 2023ko maiatzaren 15etik 31ra bitartean bidali ahal izango dira. Epe hori baino lehenago edo beranduago bidalitakoek ez dute lehiaketan parte hartuko.

### SARIAK

Lehiaketaren irabazleak 2023ko ekainaren 19tik uztailaren 31ra bitartean Oarsoaldeko saltokietan gatzatzeko 400 euroko diru-saria irabaziko du, eta 200 eurokoa bigarren saridunak.

### EPAIMAHAIA

Irabazleak erabakiko dituen epaimahaia Oarsoaldeko Euskara Batzordearen merkataritza Lan-mahaia izendatuko du eta ekainaren 9rako emango du epaia.

(1) Lehiaketan parte hartzeak arau hauek onartzea dakar.

(2) Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoak xedatuarekin bat, parte-hartzaileek bere baimena ematen dute bere datu pertsonalak erabili ahal izateko. Datu horiek lehiaketaren parte-hartzaileen fitxeroan sartuko dira, eta soilik horrekin lotutako helburuetarako erabiliko dira. Fitxero horren jabea Oarsoaldea Garapen Agentzia da. [dbol-lopd@oarsoaldea.eus](mailto:dbol-lopd@oarsoaldea.eus) posta elektronikora jo beharko da datu horiek eskuratu, aldatu, baliogabetu eta horien kontra egiteko eskubideak gauzatzeko.